

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu prozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela zure euskara plazara ateratzea!

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Ez daukazu antolatu beharreko ibilbiderako ideiarik? Sar zaitetz [helbide honetan](#), eta ikus itzazu aukeran dituzun ibilbide guztiak. Baietz baten batek konbentzitu!
- ✓ Patxi Zubizarreta idazleak **Gasteiz** izeneko liburu bat argitaratu du. Liburu hau Gasteiztik barrena bisita gidatua egiteko proposamena da. Gidariak Gipuzkoatik iritsitako lagun-taldearekin zeharkatuko ditu Gasteizko kaleak, eraikin historikoak, parkeak, tabernak... eta bertan gertaturiko hainbat istorio azalduko ditu ibilbidean zehar. Liburuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, egin klik [esteka honetan](#). Animatu, eta irakurri liburua!
- ✓ Txangoak egin bitartean, egin itzazue argazkiak eta Blogera igo. Horrela, beste ikasle batzuek ideiak jasotzeko aukera izango dute.

### Internet eta hedabideak aprobetxatuta:

- ✓ EITBko Pintxo Pote saiokoak ere Gasteizen ibili ziren; ikusi nahi nola moldatu ziren? Egin klik [estekan](#) eta ikusi saioa. Bertan ageri diren zenbat toki ezagutzen dituzu? Ados al zaude saioak ematen duen Gasteizko irudiarekin? Komenta iezazkiozu ikaskide bati galdera horien erantzunak.
- ✓ Gure inguruan ere txoko asko daude bisitatzea merezi dutenak. Sar zaitetz Eusko Jaurlaritzaren [orri honetan](#) eta aukera ezazu egun baterako proposa izan daitekeen txango bat. Proposatu ikaskideei, eta, aukera baduzue, egin ezazue ikasturte amaierako irteera polit bat.
- ✓ Beste mota bateko aukerak ere badaude. Adibidez, [orrialde honetan](#) bestelako jarduera batzuk proposatzen dituzte, toki bereziak ezagutzeaz gain: zubi-saltoa, arroila-jaitsiera, espeleologia... Ikus ezazu ematen duten informazioa eta dituzten aukeren artean hautatu bi: bat sekula egingo ez zenukeena eta beste bat bihar bertan egingo zenukeena. Azaldu ikaskideei egindako hautua. Zer pentsatzen dute haiek?